

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Luzokermína

LUZOKERMINA ERE irazle iaioa da. Beraren izen zientifikoak, *Ecballium elaterium*, ederki jasotzen du. Kukurbitazeoen familiako *Ecballium* genero-izena grekozko *ekballein*-etik dator, hau da, “egotzi” edo “jaurti” adierazten du eta espeziea adierazten duen *elaterium*-ek gauza bera esan nahi du, latinez agidanean. Izena, beraz, egozle egozlea, benetako irazlea.

Fruitu duen kurkubitoxoa, haziak nahasian dituen ore lirdingatsu batez bete hiltzen da. Azalean ile gogor antzekoak ditu. Barrua hazi nahian eta azal zakar antzeko horren arteko tentsioa txortanak eusten duen tokian hausten da. Txortanak heltzen zuen tokian utzitako txulotik askatzen da barruko presio guztia, karkaixa botako balu lez, parrasta batean haziak eta ore alde batera boteaz eta fruituak berak atzera eginez. Putzaldi horrekin haziak hamar bat metrora arte ere urrutira ditzake. Europako zilborraren kulturetan aski ezaguna da landare honen jokabide hori.

Eztanda gure moduko animalia baten batek ukituta gerta daiteke. Mihura-biskan harrapatutako pirripioaren tankeran, hor joango dira haziak zorioneko animalia bizen bizkarrean, larruan, ileetan, soinekoan edo azpantarrean, lirdingaz itsatsita, airoso asko!



RICKP CC-BY 2.5

Ecballium elaterium, luzokermína.

Inoren zirriaren zain izan gabe, bere kaxa ere lehertzen da luzokermínaren fruitua, heltzearen heltzeaz barruko presioari heldu ezinik...

Luzokermínaren egozle fama hazietatik hasi eta urrutira iristen da. Fruitua bera purga bezala erabilitzen da, gorputzetik zikinak botatzeko... Latineko *elaterium* hortik ote datorren diote batzuek. Purga premia denean bada, baina landarea Nafarroan dugu ugarien, Zangotza, Aibar, Lodosa...



WWW.FERIAONLINE.CL

10.754.000

27 estatuen Europak aurten ekoiztea espero den sagar tona kopurua. Iazkoa baino %7 gutxiago. Ekoizle garrantzitsuenak, milioika tonatan: Polonia 2,6, Italia 2,12, Frantzia 1,6, Alemania 1,04, Espainia 0,45, Herbehereak 0,4, Belgika 0,31.

<http://ttiki.com/2891>



Gipuzkoako baserriarren denda
Landare eta lore haziak, erremintak, plastikoa, botikak...



Babeslea: Gurdi Kooperatiba Elkarteak

